

EUSKAL KATEDRAREN LEHIAKETA ETA ERAGINA

Bilbo, 1988-VII-1

Jose Antonio Arana Martija

Resurrección Maria de Azkue, Bizkaiko Aldundiak sorturiko Euskal Katedraren arduradun izendatua izan zenetik, ehun urte bete dira aurtengo Ekainaren 8an. Eta bere garaian garrantzi handia izan zuen izandatzeko hau ospatzera eta aztertzerako goaz Euskaltzaindiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta duten eginkizun honetan. Garrantzitsua iruditzen zait orduko lehiaketa, partaideen artean hiru bizkaitar ospetsu nabarmendu zirelako eta katedrak berak eta izendapenak ondorio itxaropengarriak ekarri zituztelako euskarak orduan behar zuen bultzapen eta berpizterako.

Ez da gaurkoa soilik, mendeurrenaren une honetan, gaiak eragin duen interesa, luzea baita honetaz bibliografía, nire lanaren azkenean ikus dezakegunez. Lehenago argitaratuak diren ikerlanetan azaltzen diren xehetasunak ez ditugu hemen gaur errepikatuko eta lehiaketaren historia jakin nahi duenak honako lan hauetara jo beharko du: Lino Akesolo, Manuel Basas, Itziar Laka, Manuel Llano Gorostiza eta Martin Ugalde jaun andreak idatzi eta argitaratutako lanetara, noski. Baina gehiena esanda egon arren, badira zalantzak eta iluntasunak, eta aipagarri izan daitezkeenak ez esandakoen artean. Gaurko hizlariak halako ildotik saiatuko garelakoan nago. Nere aldetik katedraren irabazle eta lehen Euskaltzainburu izan zen Azkue jauna izango da ikerlanaren ardatza.

Dena den, gaia bideratu eta mugatzeko, lehiaketaren historiatxo bat ematea egokia iruditzen zait. Pablo Alzola Minondo, donostiarra (1841-1912) Bizkaiko Diputazioaren Lehendakaria zelarrik, 1887.eko Azaroaren 8an Mungiaiko semea zen Aureliano Galartza Diputatuak dohainko euskal katedra bat sortzea proposatu zion Aldundiari. Ez zen hau izatez asmo berria, 1841.eko Apirilaren 2 eta 4an Bizkaiko Batzar Nagusiek Bilbon Institutu berria sortu zutenean Euskal Katedra bat bertan antolatzea asmatu bait zuten, geroago, 1860 inguruan, Fray Jose Antonio Uriarte frantziskotarrak (1812-1869) bultzatu zuen ideia berbera. Hogeita hamabost urte geroago, 1876.eko Urriaren 6an Camilo Villabaso Diputatuak proposamen berbera egin zion orduko batzarrari. Ordutik 1888 data

arteko hamaika urteen zehar, beste Diputazioek aurrea hartu zioten Bizkaikoari. Araban, *Lau buru* aldizkariak 1883.eko Irailaren 2an dioskunez,

...El claustro de Profesores del Instituto de Vitoria se ocupa actualmente de llevar a cabo la instalación de una Cátedra de vascuence

Derrigorrezkoa zen orduan euskararen irakaskuntza berreskuratu eta nonbaiten kokatzea, Gasteizko irakasle horiek beharrezko asmo hori burutzen ari ziren urte berean kendu zitzairen Udalei maisuak izendatzeko eskubidea eta. Maisu erdaldunak izendatzen zituzten goitik behera eta erabaki horren kontra azaldu ziren behin baino gehiagotan beste batzuren artean Aran-Goiri eta Azkue bera. Izkribuetatik aparte gogora dezagun lekeitiarrak musikatutako *Vizcaytik Bizkaira*. Azkuek zarzuelatxo hau estreinatu zuen urte berean, Gipuzkoako Diputazioak, 1895.eko Azaroaren 12an udalek maisu euskaldunak izendatzeko eskubidea eskatu zuen. Alperreko eskaria zeren eta sei urte geroago, 1902.eko Otsailaren 15ean izendatutako maisu erdaldunek Gipuzkoan euskaraz hitz egitea ez galaraztea eskatu beharrean aurkitu zen Diputazioa. Alperrekoa eskari hau ere: 1902.eko Azaroaren 21eko Erret Dekretuak erdara hutsean irakaskuntza burutzea inposatu zuen.

Baina goazen berriz euskal katedraren harira. Gipuzkoari dagokionez, *Euskal Erria* aldizkariak (1886-6-10, 213. zenbakia) ematen digu lurralde honetako katedraren berri: Euskal Loretako Jokoen eskaria onartuz, 1886.eko Ekainaren 7an erabaki zuen Gipuzkoako Diputazioak euskal katedra bat sortzea. Aldizkari berean (1886-9-20) ikus dezakegu Jose Gaspar Oregi apaiza katedradun izendatua izan zela, bera bakarrik lehia- ketara aurkeztu zelarik. Hamahiru urteren zehar iraun zuen katedra honek, 1899an ezabatua izan bait zen.

Nor zen Gipuzkoan euskararen irakaskuntzarekin arduratu zen apaiz hau? Soraluzen jaioa omen zen, 1840an, Jose Gaspar Oregi Aranburu jauna. Dakigunetik, katedra lortu ondoren, Maria Cristina erreginari euskarazko klaseak ematen dihardu zuen 1887.eko udan. Hainbat euskalzale- rekin harremanetan ibili zen eta, nola ez, Edward Spencer Dodgsonekin ere bai; olerki bat zuzendu zion honek, Aita Santiago Onaindia-ren *Euskal Literatura* delakoan ikus dezakegunez (III, 215-216 orr.). Azkuerekin ere izan zituen harremanak eta lankide zirenez Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal katedretan, *Euskal Izkindea* igorri zion bizkaitarrak 1891.eko Irailaren 26an. Eskerroneko erantzuna eman zionean, hara zer ziotson gipuzkoarrak:

”Nire, ai!, Donosti dontsu onetan Euskarak duan baño ikasle geiago ez izatea ezin geiagoraiño mingarri bazait ere, zeñi erakutsi daukadan bitartean, gure ikastegi onetako argijariorik onena paregabeko zure Izkinde bikañ au izango zaigu”.

Benetan harrigarria erantzuna, Bizkaierazko Gramatika bait zen Azkue-rena. Oregik erabiltzen zuen irakasteko metodoa eta irakasten zuen eus-kara moeta izan omen katedra ezabatzeko zioa. Gero, 1905ean Donostia-ko Artzain Onaren Elizan aurkitzen dugu Oregi jauna Gasteizko Gida Eklesiastikoak azaltzen digunez.

Nafarroan Euskal Katedra sortzeko ahaleginak ere *Euskal Erria* aldiz-karian (1886-11-10, 228 zenbakia) ikus ditzakegu. Kontutan izan behar dugu Arturo Campion jaunaren *Gramática de los cuatro dialectos litera-rios del euskara* 1884-1885 urteetan kaleratua zela. Juan Maria Lekuonak esan didanez, bere osaba on Manuel Lekuonaren osaba izan zen Migel Antonio Iñarra Mitxelenak (1864-1898) irabazi zuen Iruñeko Euskal Kate-dra 1897an.

Beraz, Bizkaian baino lehenago emanak baziren euskal katedrak sortzeko urratsak, gure lurralde honetakoa izan zen bizitza luzeagoa eta eraginkorragoa eduki izan zuena.

Galartza jaunaren proposamena erregistratu ondoren, eta Gipuzkoa-ko Diputazioetik hartutako argibidea aztertuta, Fomentoko Batzarkideek (Angel de Uria, Esteban A. de Azillona, Pascual Larrazabal eta Fernando Landetxo jaunek osotzen zuten Batzorde hau), katedra sortzearen alde jarri ziren Azaroaren 17an. Hurrengo egunean gertatu zen eztabaida oso berezia izan zen: Diputatu oroek onartu zuten Fomentoko Batzordearen erabakia, baina katedra non kokatzea izan zen batzar luze baten gaia: Bilbo, Durango eta Markina aldeko taldeak bildu ziren. Bilboren alde eman zuten lehen botua, Uria, Galartza, Urizar, Torres Vildosola, Jauregi, Landetxo, Orbe, Goioaga, Basterra eta Alzola buruak. Markinaren alde agertu ziren: Larrazabal, Bolibar, Azillona eta Apoita. Lehendabizi Durangon kokatzearen alde azaldu baziren Urizar eta Orbe, Bilbon Mar-kinan baino hobeto egongo zelakoan, Bilboren alde jo zuten azkenean bi diputatu hauek. Beraz, bozketaren arauera, Euskal Katedra Bilbon koka-tzea erabaki zen.

Hurrengo urteko Otsaila arte ez zen beste erabakirik hartu. Hil honen 15ean Bizkaiko Boletinean iragarki bat jartzea erabaki zen, Otsaila-ren 17an agertu zena, hain zuzen. Martxoaren 31 jarri zen epemuga eskariak aurkez zituzaten lehiakideek. Epea bukatu zen egunean lau ziren azaldu ziren eskariak, jaun hauenak hain zuzen: Resurreccion Maria de Azkue, Sabino Arana Goiri, Pedro Alberdi eta Miguel de Unamuno. Hurrengo egunean, postaz sasoiz jarria, heldu zen postgarren eskaria, Eustakio Madina jaunarena. Aldundiaren Artxibategian datzan espedien-tean ez da agertzen Luis Itza Agirre jaunaren eskaria, baina Azkuek dioskunez (Ikus Aita Lino Akesoloren lana) hau ere lehiakide izan zen. Pedro Alberdi, ostera, ez du Azkuek aipatzen.

Maiatzaren 28an Juan Pantaleon Aranzibia, Aldundiko Idazkari Nagu-siari agindu zioten, lehiakideen merituak aztertuz, hauen arauera lerroka-

da bat presta zezala. Batzorde berezi bat ere izendatua izan zen gai honetan azken erabakia hartzeko: Buru, Uria, eta kideak, Larrazabal, Azillona, Landetxo eta Torres Vildosola. Hurrengo egunean, Maiatzaren 29an Aranzibiai batzordeari eman zion eritzia hau izan zen:

Carece en absoluto de competencia el suscrito para juzgar trabajos literarios sobre la lengua vascongada, pues que sus conocimientos en la materia no pasan de los rudimentarios que pueda tener toda persona que habla la nativa, pero sin hacer estudio alguno de su literatura, y por consecuencia, para apreciar los presentados por los aspirantes a la cátedra que para su enseñanza tiene acordado establecer la Excm. Diputación, ni para emitir opinión respecto de los conocimientos científico-literarios que estos reúnan y que son necesarios para dedicarse con fruto a la enseñanza de una lengua, cuyo origen se remonta a la edad prehistórica y cuyos monumentos literarios son hartos escasos por desgracia.

Sin embargo, en cumplimiento de lo que se ordena por V. S., he de exponer con todo respeto el concepto que me merecen los títulos profesionales de cada uno de los aspirantes y la aptitud que, por su virtud, puede suponerse en ellos.

Entre éstos el que naturalmente ocupa el primer lugar, es el de D. Miguel de Unamuno y Jugo, Doctor en Filosofía y Letras, por ser ésta la única carrera de carácter oficial que supone conocimientos especiales en materias literarias y filológicas, máxime, cuando como el Sr. Unamuno, han sido calificados con la nota de Sobresaliente los exámenes que sufrió en las asignaturas de Lengua griega (1.º y 2.º curso), Literatura Griega y Latina, Literatura Española, Lengua Hebrea, Lengua Arabe, Historia crítica de la literatura española y Sanscrito, habiendo obtenido la misma nota de Sobresaliente en los ejercicios de la Licenciatura y el Doctorado de la Facultad expresada.

En segundo término debe figurar D. Resurrección M.^a de Azcue, Bachiller en Sda. Teología, quien ha acreditado haber hecho sus estudios con notable aprovechamiento, si bien es cierto que éstos no tienen relación directa, ni inmediata con la literatura y filología.

Y no presentando títulos profesionales los demás Sres. solicitantes, el suscrito, por las razones expuestas al principio, se abstiene de emitir opinión respecto de los mismos.

Es cuanto puedo manifestar respecto de este punto, evacuando el informe ordenado por V. S.

V. S., no obstante, con superior ilustración consultará a S. E. lo que estime más acertado.

*Bilbao 29 de Mayo de 1988.
El Secretario
Juan P. de Arancibia*

Ikusten dugunez, lehenengo baheak, Azkue eta Unamuno izan ezik, beste guztiak lehiaketatik kanpo utzi zituen. Eta gero ikusiko dugunez batzordekoek ere bi izen hauekin jokatu zuten katedraduna izendatzeko. Beste joera bat asma dezakegu Sabino Arana Goirik Jose Arriandiagari Sukarrietatik 1901.eko Abuztuaren 15ean idatzitako gutuna kontutan hartzen badugu (*Muga*, 17 zenbakia, 1981, 43-47 or). Bertan dio Sabineek batzordeko gehienak bere alde zeudela eta Larrazabal diputatuak Azkueri bide zabala uztea eskatu ziola. Larrazabal Azkueren alde zegoela argi ikus dezakegu hurrengo txostenean, baina gauzak zeuden zeudenan ikusita, ez zuen Aranak atzera egin beharrik.

Ekainaren 6an, Aranzibiaren eritzia irakurri ondoren, eman zuten batzarkideek Azkue edo Unamunoren aldekoa. Uria, burua, eta Landetxo Unamunoren alde azaldu ziren eta Larrazabal eta Azillona Azkueren alde. Hona hemen bi bikoteen txostenak:

Excma. Diputación Provincial de Vizcaya.

Excmo. Dr.

Los Diputados que suscriben enterados del expediente promovido a consecuencia de la provisión de la cátedra de lengua vascongada, creada últimamente por V. E., tienen el honor de manifestar: Que han examinado detenidamente y con toda escrupulosidad las instancias presentadas por los solicitantes, con los documentos que a cada una de ellas acompañan. Han visto también el informe emitido sobre el particular por el Secretario de V. E. y de acuerdo con él, los suscritos son de parecer que, a fin de que la elección recaiga en el aspirante más apto, y sea lo más acertada posible, se hace preciso estudiar los títulos que aquéllos presentan y que acreditan su competencia para el cargo a que aspiran.

Examinados con este criterio todas las solicitudes que se han presentado, los firmantes ni vacilan en asegurar que el aspirante que debe figurar en primer término es el Sr. D. Miguel de Unamuno y Jugo, Doctor en la Facultad de Filosofía y Letras, y único que posee un título profesional de carácter oficial, título que supone conocimientos especiales en materias filológicas y literarias; y que ha sido calificado con nota de Sobresaliente en las asignaturas de Lengua Griega (1.º y 2.º curso), Literatura Griega y Latina, Literatura Española, Lengua Hebrea, Lengua Arabe, Historia crítica de la Literatura Española y Sanscrito, habiendo obtenido la misma nota de Sobresaliente en los ejercicios de la Licenciatura y el Doctorado de la expresada facultad.

Los Diputados que suscriben deben hacer constar que al anunciarse la vacante de la plaza de profesor de vascuence, se hallaba ausente de Bilbao el Sr. Unamuno; pues estaba en Madrid haciendo unos ejercicios de oposición a una cátedra vacante en este Instituto provincial de 2.ª enseñanza, por cuya razón no acompañó trabajo alguno a su

instancia; pero pueden citar, entre otros trabajos hechos por el Sr. Unamuno relacionados con el Vascuence, los artículos publicados en la Revista de Vizcaya acerca del elemento latino en el idioma vascongado, y el Discurso leído por dicho Sr. en el acto del Doctorado en el que hace un detenido estudio sobre el idioma vascongado, teniendo asimismo entre manos actualmente un Diccionario Vasco-Castellano, tanto del lenguaje comúnmente hablado como del clásico y literario.

También tiene publicadas diferentes composiciones de menor importancia, así en prosa como en verso escritas en vascuence; habiendo dado gallardas muestras de sus conocimientos en la lengua vascongada en las sesiones públicas organizadas por el Fok-Lore Vasco-navarro de esta Villa.

Todos estos hechos son razones que, a no dudar, dan garantías suficientes de las especiales circunstancias que concurren en el Sr. Unamuno; y por tanto los Diputados de la Comisión de Fomento proponen a V. E. se sirva designar al citado Sr. Unamuno para el cargo de profesor de la lengua euskara, cargo que está más en armonía con la Facultad de Filosofía y Letras que ejerce dicho Sr. Unamuno que no con la de Teología que acredita el Sr. Azcue, por cuanto esta última facultad carece del carácter profesional que aquélla tiene.

V. E. sin embargo, acordará, con superior ilustración, lo que estime más acertado.

Bilbao 6 de junio de 1888

*Excmo. Sr.
Angel de Uria
Fernando de Landecho*

Excma. Diputación Provincial de Vizcaya.

Excmo. Sr.

Los suscritos Vocales de la Comisión de Fomento han examinado el expediente instruido con motivo de la provisión de la cátedra de vascuence que V. E. acordó crear recientemente.

Entre los solicitantes, los únicos que aparecen con títulos profesionales que acrediten su aptitud para el mejor desempeño del referido cargo son los Sres. D. Miguel de Unamuno y Jugo, Doctor en Filosofía y Letras y D. Resurrección María de Azcue, Bachiller en Sagrada Teología. Ambos han hecho sus estudios con notable aprovechamiento y han obtenido en ellos las mejores calificaciones.

Los Diputados que suscriben, sin desconocer que el Sr. Unamuno presenta un título de carrera oficial que supone conocimientos especiales en materias literarias y folológicas, entienden, sin embargo, que el Sr. D. Resurrección María de Azcue reúne mayores condiciones de

idoneidad, no sólo por su carácter sacerdotal del que es tan propia la misión docente, sino por la competencia y suficiencia que ha demostrado tener en el conocimiento de la lengua vascongada, como lo acreditan los trabajos que tiene presentados; el uno con el título de “Leyenda en prosa vascongada, basada en un hecho histórico acaecido en las aguas del Cantábrico hacia el año 40 de este siglo”, y el otro con el de “Ensayos de algunas materias sobre la Gramática Vascongada”, circunstancia que no se ha acreditado por el Sr. de Unamuno.

En vista de estas consideraciones los que suscriben tienen el honor de proponer a V. E. para ocupar la plaza de profesor de lengua vascongada al citado S. D. Resurrección de Azcue.

V. E. no obstante, acordará lo que estime más acertado.

Bilbao 6 de junio de 1888

Excmo. Sr.

Pascual de Larrazabal

Esteban A. de Acillona

Azkenean, gai hau tartean zelarik, bildu zen Diputazioa Ekainaren 8an. Bilera honen agiriak hau dio:

Excma. Diputación Provincial de Vizcaya.

Sesión ordinaria del día 8 de Junio de 1888.

“Acto continuo se dio lectura al informe de la Comisión de Fomento y voto particular que a continuación se transcriben.

(Aquí el informe y voto particular).

Abierta discusión sobre las propuestas precedentes, manifestó el Sr. Larrazabal que es cierto que en la convocatoria no se exigía como condición precisa la presentación de documentos que acreditaran los conocimientos de los aspirantes en el idioma “Euskaro”, sin embargo, todos éstos, a excepción del Sr. Unamuno, habían acompañado a sus solicitudes trabajos más o menos importantes, distinguiéndose entre ellos los dos del Sr. Azcue, titulado el uno “Ensayo de algunas materias acerca de la Gramática Vascongada” y el otro “Una leyenda en prosa vascongada, basada en un hecho histórico, acaecido en las aguas del Cantábrico hacia el año 40 de este siglo.”

Además hizo notar también que el Sr. Azcue había obtenido en todas las asignaturas de su carrera la nota de Sobresaliente, lo que acredita la brillantez con que había hecho sus estudios, añadiendo que aunque no pueda negarse, como lo hizo constar desde un principio, los méritos literarios y excepcionales cualidades que reúne el Sr. Unamuno en su carrera de “Filosofía y Letras”, lo que se complace en reconocer, esto no obstante, no habiendo acreditado su suficiencia para el idioma

“Vasco”, como lo ha hecho el Sr. Azcue, debía ser designado este último para el cargo que se trata de proveer, sin que obste a ello el que el Sr. Unamuno tenga trabajos particulares sobre este punto, puesto que la Comisión los reconoce y bien pudo haberlos remitido desde Madrid como lo hizo el Sr. Azcue desde Salamanca.

El Sr. Landeche expresó a su vez que como ya se decía en el informe, el Sr. Unamuno se hallaba accidentalmente en Madrid cuando se anunció el concurso, ocupado en los ejercicios de oposición de la Cátedra de Psicología, Lógica y Ética, vacante en el Instituto Vizcaíno, por cuya causa no pudo remitir trabajo alguno sobre el idioma vascongado, mientras que el Sr. Azcue, se hallaba estudiando en Salamanca, y por lo tanto, teniendo allí todos sus trabajos, pudo remitir los que obran en el expediente pero que, como los hechos citados en el informe respecto al Sr. Unamuno eran exactos, a los mismos se refería. Citó también, las brillantes calificaciones obtenidas por el Sr. Unamuno en sus exámenes y grados en la Facultad de Filosofía y Letras, única que supone conocimientos especiales en materias filológicas y literarias.

El Sr. Uria, abundando en las mismas ideas expuestas por el Sr. Landeche manifestó, que no podía admitir como hecho exacto el citado por el Sr. Larrazabal, de que el Sr. Azcue, había acreditado su suficiencia en el idioma vascongado, pues tan sólo se sabía que éste había predicado en vascuence un sermón en Lequeitio, lo cual demostraba únicamente que lo hablaba, pero no que tuviera conocimientos bastantes para enseñarlo científicamente, pues, sabido era, que la gran mayoría de los que hablan el vascuence, no conocen su gramática, al paso que el Sr. Unamuno, tanto en sus escritos, como en sus obras y conferencias, había demostrado conocer su estructura y gramática y lo hablaba tan bien como el Sr. Azcue.

El Sr. Larrazabal manifestó contestando al Sr. Uria, que si algo fijaba éste su atención en los documentos que los Sres. Azcue y Unamuno acompañan a sus instancias, observaría por las notas obtenidas por el primero en su Carrera Mayor, que tiene grandes motivos para conocer perfectamente la estructura gramatical, estrañándole, por lo tanto lo que acababa de decir dicho Sr.

Replicó el Sr. Uria que los conocimientos de la Carrera Mayor a que alude el Sr. Larrazabal, se refieren a los de Sagrada Teología y no a los de la lengua vascongada, que es la que ha de enseñar el que sea nombrado por la Diputación.

El Sr. Basterra manifestó que no se podía formar un juicio exacto y verdadero, pues tanto los dictámenes de la Comisión como las explicaciones verbales dadas por algunos Sres. Diputados en pro de cada uno de los candidatos por que abogan, adolecen a su juicio de una falta, cual es la de no constar oficialmente a la Diputación la certeza de los hechos en que se fundan, y esta falta tiene por causa el no haberse anunciado en la convocatoria que los solicitantes presentaran trabajos de cierta índole, que de haberse hecho así es bien seguro que se

hubiera podido juzgar con más conocimiento de causa, sin que se dé el caso que hoy se da, de que se aleguen y expongan méritos de los candidatos que conocen en el terreno puramente privado: en su consecuencia se abstenía de votar en pro ni en contra de ninguno de los que solicitan la Cátedra de vascuence.

Procedióse a votar por papeletas y resultó elegido para la citada plaza de Profesor interino de lengua vascongada en el Instituto Vizcaíno con el sueldo anual de *Mil quinientas pesetas* D. Resurrección M.^a de Azcue, que obtuvo once votos, contra tres que obtuvo a su vez D. Miguel de Unamuno, y una papeleta en blanco.

Cmdo. al int^o y al Contador

Junio, 11/88

Resurrección Maria de Azkue eta Aberasturi dugu, bada, Bizkaiko Institutuan kokatuko zen Euskal Katedraren arduradun, 1888.eko Ekainaren 8an izendatua. Katedraren lehiaketarako iragarkia Bizkaiko Boletinean azaldu zenean Salamancan zegoen Azkue apaiz karrera bukatzen. Ez zuen Boletinin ikusi baina Lekeitiotik eman zioten deiaren berri etxekeok. Eta Martxoaren 6an halako eskaria igorri zuen Diputaziora:

Excmo. Sr. Presidente de la Diputación de Vizcaya.

El que suscribe, Resurrección M.^a de Azcue y Aberasturi, natural de Lequeitio, provincia de Vizcaya, ordenado de subdiácono, de 24 años de edad, a S. E. con el debido respeto expone:

Que habiendo llegado a su conocimiento el proyecto que tiene la Excm. Diputación de crear una Cátedra de Bascuence en el Instituto provincial de la Villa de Bilbao y creyéndose apto para dirigirla, suplica a S. E. se digne prestar benévolo sus oídos a su demanda y conferirle el cargo que solicita.

Dios guarde a V. E. muchos años.

*Br. Resurrección María de Azcue
Seminario Central de Salamanca, 6 de Marzo de 1888*

Eskari honekin batera igorri zituen Salamancatik euskarazko lan bat, *Grankanton arrantsaleak*, eta euskal gramatika baten zirriborroak. Irailaren 5ean, katedra irabazi ondoren Lekeitiotik Bilbora etorrira, eskuratu zituen Diputazioan eskariarekin etorri ziren eranskinak, bazterrean hala idatziz eta sinatuz:

He recibido las dos certificaciones y dos obritas titulada la una *Leyenda en prosa bascongada* y la otra *Ensayo de algunas materias* a que

se extiende la *Gramática Bascongada*, que se acompañaban a esta instancia.

Bilbao, 5 de Septiembre de 1888

Azkueren kasuan, irabazle izan zenez, espedienteen geratu zen eskaria. Baina beste lehiakideen kasuetan ez da eskaririk agertzen, eta itzuliak izango zirelakoan nago, penagarri izan arren bakoitzaren datuak ezagutzeko aukera izango genuen espedienteen geratu baziren eta.

Azkuek aurkeztutako bi lanetatik bat ezaguna dugu, baina ez argitaratua. *Grankanton arrantsaleak* da “Leyenda en prosa bascongada” hori eta Azkuek berak dioenez euskaraz berak idatzitako lehen lana dugu. Eskariarekin batera igorri bazuen Diputaziora, Martxoaren 6a baino lehen idatzia izango zen. Ez da beraz hau orain ezagutzen duguna, Pariseko Bibliotheque Nacionaletik ekarritako argazkiak Martxoaren 27ko data darma eta. Beste kopia bat egingo zuen Azkuek, Cesareo de Churruca josulagunari egileak zuzendua. Kopia hau Dodgsonen eraman zuen Parisera 1892.eko Abenduaren 19an: eskuskribuak azala eta bederatzi orrialde ditu. Azkueren euskarazko lehen lan hau, argitaragabea, **Euskera** agerkarian atera beharko genuke faksimilean, eta hala eskatzen dut ezagutzea merezi duelakoan une honetan.

Baina bazeukan Azkuek zeozer argitaratua, euskaraz, lehiaketaren epea bukatu orduko, eta arraroa da eskariarekin batera ez aipatzea, Bilbon kaleratu baizen, *Apis* aldizkarian. *El Vasco* egunkariaren eranskina zen aldizkari hau eta 29 ale atera zituen 1888.eko Urtarrilaren Setik urte bereko Abenduaren 20a arte. Enrique Olea zuzendari izan arren, Estanislao Jaime de Labayru apaiza izan zela eragilea esan dezakegu. Honek eskatuta edo igorriko zituen Azkuek Salamancatik *Apis* delakora bere lantxoak. Martxoaren 15ean, beraz katedrarako eskaria egin ondoren, argitaratu zen *Peru matraka ta Pedranton* Azkueren ipuinaren lehen zatia. Gero Apirilaren 19 eta 26ko aleetan jarraitu zuen Azkuek ipuin hau argitaratzen. Ez zuen ipuina amaitu. *Grankanton arrantsaleak* kondaira eskuskribuz igorri bazuen lehiaketarako, bazeukan argitaratutako lan bat ere aurkezteko, ez bazuen egin ere. *Apis* desagertuta urte betera, 1889ko Abenduan, Azkuek, Silberio Etxebarria apaizak, Antonio Arginzoniz durangarrak eta Sabino Arana-Goirik beste aldizkari bat kaleratu zuten, *La Abeja* izenekoa, 1890ko Maiatzerarte iraun zuena sei ale kaleratuz. Sei aleetan argitaratzen da berriz Azkueren *Peru matraka ta Pedranton*, baina aldizkari honetan ere ez du bukatzen Azkuek ipuina. Lehendabizi *Apisen* argitaratu zuenean bere izenarekin sinatu zuen lana; baina oraingoan, *La Abejan* argitara eman zuenean, ezizen bat erabili zuen, hots, “Ezti-Abaua”. Aldizkari berean argitara eman zuen 1890.eko Urtarrilan beste lantxo bat “Iolas-aldia” sailean: *Izena eta izatea*, “Eztena” izenordez erabiliz.

Beste lehiakide, gero ospetsuak izango zirenak, Miguel de Unamuno eta Sabino Arana Goiri ziren. Hiruretatik zaharrena Azkue zen Lekeition 1864.eko Abuztuaren 5ean jaioa. Hau baino hile pare bat gazteagoa zen Unamuno, 1864.eko Irailaren 29an jaioa. Azkenik, Sabino Arana Goiri, Unamuno bezala bilbotarra, 1865.eko Urtarrilaren 26an jaioa zen. Jaiotzatik ematen zaio lekeitiarrari beste biren aurkako abantaila bat, hots, seaskatik xurgatu zuela euskara. Bilbotarrek, oster, ez zuten txikitatik euskara ikasi eta gero ere mintzatzeko zailtasunak izan zituzten. Hala aitortzen dio Sabinok Zabala'tar Aingeruri Gernikara 1897.eko Apirilaren 13an zuzentzen dion gutunean, oraindik argitaratu gabe dagoenean. Unamunok ere, Bilbon zaila zenez euskaraz hitz egitea, Gernika aldean egiten zituen mintza praktikak; ez dugu ahaztu behar Concha Luzarraga andereñoarekin ezkondu zela hiri honetan 1891.eko Urtarrilaren 31an. Baina hiru gizon hauen arteko istiluak Alfonso Irigoien jaunak aztertuko ditu eta ez noa gehiago luzatzen. Dena den, eta musikari dagokionez, Unamunoren izaera berezia ulertzeko, anekdota labur bat emango dut. Belarri onekoa ez omen zen gure Migel, eta abesbatz batetan kantari zelarik, zuzandariak akatsa nabaritu zuen. Hara Unamunoren erantzuna: "Desafino... para que me oigan".

Unamunok ez zuen lehiaketara idazlanik aurkezku, nahiz eta ordura-ko dozena erditik gorako lanak argitaratuak izan. Madriden beste lehiaketa batetan diardu zuelako zela esaten da espedientean. Bilboko Institutuan Filosofia Katedra betetzeko zen lehiaketa hori, eta ez zuen irabazi Unamunok. Beraz, urte berean bi katedra galdu zituen eta beste makurraldi bat ere jasan izan behar zuen, Antonio de Truebaren ordezkari Jaureriaren Kronista izendatua ez izatea. Bazituen bada Unamunok minduta egoteko zioak. Une egokia dela gaurko hau, uste dut, ordurarte argitara emandako lanen zerrenda, euskarari buruzkoak, emateko.

- 1884 – Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca. Madriden, 1884.eko Ekainaren 20an, Doktorego tesia gisa azaldua. Ez zen 1956 arte argitaratu.
- 1886 – El elemento alienígena en el idioma vasco. *Revista de Vizcaya*, 15-2-86, 259-269 orr. eta 1-3-86, 295-305 orr.
- 1886 – ¿Vasco o basco? *Revista de Vizcaya*, 399-404 orr.
 - Más sobre el vascuence. *Revista de Vizcaya*, 422-426 orr.
 - El dialecto bilbaino. *El Noticero Bilbaino*, nov. 1886.
- 1887 – El diccionario vascongado de Novia y Salcedo. *El Norte*, Bilbao, 15-10-87.
 - Sobre la acentuación de los apellidos vascongados. *El Noticero Bilbaino*, 7-11-87. (Hurrengo egunean azaldu zuen Aureliano Galartzak Diputazioan euskal katedra sortzeko proposamena).

1888 – De ortografía (vasca). *El Noticiero Bilbaino*. (Sabino Aranaren erantzuna izan zuen artikulu honek).

Unamunorekin amaitzeko esan dezagun, Azkuek katedra irabazi ondoren eta hurrengo kurtisorako programak prestatzen ari zelarik, bilbotarra-ekin topo egin zuela Gernikako Euskal Jaietan, 1888.eko Irailaren 10ean, biak izan bait ziren epaimahaiko euskarazko lanak saritzeko. Oraingo honetan Felipe Arrese Beitiari eman zioten lehen saria eta bigarrena Francisco López Alen donostiarrari.

Sabino Aranak ere bazituen ordurako dozena erdi idazlan argitaratuak, honako hauek hain zuzen:

1886 – Proyecto de Academia Bascongada del Sr. Artiñano. EE, 30-10-86, 361-364 orr.

– ¿Vasco o basko? 1885an idatzia eta argitaratua, *Revista de Vizcaya*, 1886, 166-172 orr.

– Etimologías sueltas: España. *Revista de Vizcaya*, 1886, 241-244 orr.

– Nombres de villas de Bizcaya. *Revista de Vizcaya*, 1886, 413-421 orr.

1887 – Etimologías euskéricas. 1885an idatzia eta argitaratua, *Revista de Vizcaya*, 1887.

1888 – Pliegos Histórico-Políticos, I. 1886-4-21ean idatzia eta 1888-4-7an argitaratua.

– Pliegos euskeráfilos. 1886-12-20 idatzia eta argitaratua, *El Noticiero Bilbaino*, 1888-5-12. Unamunoren aurka idazten du artikulu hau, honek proposatutako ortografia delata.

Euskarazko gaietan ez bazuen Azkuek Sabino aintzakotzat hartzen sarri askotan, politika arazoetan hurbil zebiltzan Arana-Goiri hil ondoren. Azkuek Toursetik idatzi zuen gutun batetan, 1906.eko Urtarrilaren batean, zera esaten zuen: “En política soy en el fondo lo que me hizo Arana Goiri: nacionalista”.

Bizkaiko Aldundiaren Artxibategian dagoen espedientean beste bi lehiakide agertzen dira: Eustakio Madina eta Pedro Alberdi. Azken honetaz ez dakigu ezer. Eustakio Madina aragoarra omen zen, Azkuek dioenez. Sestaoko apaiza zen 1881ean eta urte horretan Okendoko San Roman elizara zuzendua izan zen (BOV, 14-9-1881, 26 zenbakia). Bona parte Printzearen paperetan (Carlos González Echegaray-ren Katalogoa, 283 zenbakia) agertzen da Madinak egindako itzulpen bat, Karmelo Etxegarai jaunaren ustetan: “Magnificat edo Ama Birjiñaren canta euskeraz”. *Euskal Erria* aldizkarian azaldu zituen dozena bete olerkitxo labur 1884-1889 bitartean. Katedrarako deia baino lehen dozena erdi izan ziren aldizkari honetan argitara eman zituenak.

Espedientean agertzen ez den lehiakidea Luis Cirilo Itza Agirre da. Azkuek lehiakideen artean jartzen du. Baina ondarrutarra zela esaten duenean ez du arrazoirik zeren eta Bilbon, San Juanetako Parrokian bateatua izan zen 1837.eko Irailaren 7an. Ama bai ondarrutarra zen. Beraz 51 urte zituen lehiaketaren sasoiari eta baliteke beraren adinagatik edo eskaria ez onartzea. Santurtzin maisu zelarik Bonaparte Printzearekin izan zituen harremanak 1873an (BRSBAP, 1960, 369-370 orr.). Gutun batetan dio: “Zazpi urte joanak dira (beraz, 1866) neure eskuetara eldu zala Pedro Pablo Astarloaren liburu eder bat, izendatua Apologia. Andic ona euskera icasteco eta iracusteco libuchu (sic) bat egiten nabil, bai eta euskarasco itzesco liburu bat erderasco ezan naijagaz”. Eskola umeentzat izango zen liburutxo hau. Gero, 1880an, Bilboko eskola maisu zen Itza jauna. Santurtzin zegoelarik Manterolari bidali zion eta honek *Cancionero Basko* delakoan argitaratu (1878, Tomo IV, 30-31 orr.) *Esne saltzailearen* bizkaierazko itzulpena. Ordurako Bonapartek proposatzen zuen ortografia bereganatuta zeukan gure Itzak. Bilbora etorri ondoren, Campionen *Orreaga* poema itzuli zuen bizkaierara eta hurrengo urtean Calderón de la Barca-ren *El Alcalde de Zalamea* autoaren zati bat, Bilboko Udalak aginduz. J. E. Delmasek argitaratu zuen itzulpen hau liburu eder batetan. Hitzaurrean dioenez, Euskal Akademiaren faltan, Bonaparteren ortografia onartzen du. Urte berean, 1881ean, *Euskal Erria* aldizkarian (135-138 orr.). *Begoñako Ama Birjiña Miraritsuari. Kantia Bizkaiko izkuntzan* argitaratu zuen eta aldizkari berean, 1882an (42 orr.), *Aita Sebastian Mendibururi lenengo eunteko mugaldian* olerkitxoak. Handik hamar urtetara hil zen Santurtzin Luis Itza, 1892an, etxeko balkoitik erorita, Juan Angel Etxebarriak dioskunez (Ikus: Lino Akesolo: *Dos escritores vascos bilbainos. Luis de Iza y Juan de Izurategui*. BRSBAP, 1964, 4.º 461/464 orr.).

Guzti hauek lehiakide izan zirelarik, pozik ikusten dugu ehun urte geroago denen artean Azkue izatea katedradun izendatua. Katedraren ondorioz bilakatu zen Azkue euskararen erraldoia, bere bizi osoa, hain luzea eta emankorra, euskararen defentsarekin bete bait zuen. Beste eragin bat ere burutu zuen katedrak: bilbotarrei euskara irakatsiaz aparte, hizkuntzaren izen ona eta berarekiko maitasuna sortzea.

1888.eko Ekainaren 11an eman zioten Azkueri izendapenaren berri, oraindik Salamancan zegoelarik. Uztailean apaiztu zen Azkue eta Meza Berria Lekeition eman zuen San Migel egunean, 1888.eko Irailaren 29an. Uda horretan ez zuen astirik galdu Azkuek eta katedrarako ikasbide bat asmatzen ibili zen Lekeition. Diputazioaren dei bati erantzunez, Urriaren 15ean aurkeztu zuen ikasturterako programa, 50 ikasgaietan sailkatua. Matrikulatze epea bukatu zenean, 52 ikasle zeuden zerrendetan, tartean Emiliano Arriaga Ribero, Oscar Rochelt Palme, Rafael Rochelt Palme (gero *Ardi galdua* elaberrirako irudiak egingo zizkiona), Nikolas Viar Eguskiza, Carmelo Gil Gorroño, eta abar. Kontutan izan behar dugu

adineko ikasleak zirela; esate baterako Emiliano Arriagak 44 urte zituen, Azkuek baino 20 gehiago. Horregatik, euskararen ardura bizia zeukalako, zortzi urte beranduago, 1896.eko Urrian, umeei euskara irakasteko Ikas-tetxe bat sortu zuen Azkuek Jardines kaleko 10. zenbakian. Eta behin baino gehiagotan, *Euskalzale* aldizkarian Gasteizko Gotzain zenari eskatu zion Seminarioan Euskal Katedra bat zabaltzea. Ikasleek ikasketak hobe burutzeko Ikasbide bat argitaratzea iruditu zitzaion eta 1888.eko Urriaren 26an, Diputazioari eskari bat zuzendu zion Diputazioaren moldiztegiaren astero zortzi orrialde ikasgaiekin argitara zitzaion. Lehen ikasturte horren barruan, 1889.eko Otsailaren erdian, Gabriel Maria de Ibarra jaunaren etxeko kaperaua izendatua izan zen, ama eta hiru arrebeekin Bilbon bizi zelarik, diru gehiago lortzeko aukera izanez.

Hurrengo ikasturteetan ikasle ospetsuak izan zituen, esate baterako Gregorio Balparda Herreria, Teofilo Guiard Larrauri, Jose Arriaga Igartua (“Juan de Eresalde”), Cosme Elgezabal Urrengoetxea, Joaquin Arisketa Quintana, Ramón Real de Asua, Juan Carlos Gortazar Manso, Anacleto Ortueta Azkuenaga, Eliseo Migoya Torres, Higinio Basterra Berastegi, Federico Zabala Allende, Luis Emperaile Enciso, Esteban Bilbao Egia, Francisco Iturribarria Lauzurika, Félix Landaburu Madaria, Ebaristo Bustintza Lasuen, eta abar. 1896-1897 ikasturtean lehen emakumezkoa agertzen da euskal katedran: Matilde Esteban Gil. Eta gero eta ugariagoak matrikulatzen dira.

Goizeko zazpi terdietan ematen zituen Azkuek klaseak lehen urtean. Bigarrenenerako bi maila jartzea eskatu zion Diputazioari, goizeko sei terdietan hasi eta bi orduen zehar. Hala jarraitu zuen Azkuek hainbat urteren zehar, arratsaldean klaseak ematea lortu arte. Bigarren ikasturtea hasi eta denbora gutxitara, 1889.eko Abenduaren 19an, salaketa bat egiten dio Azkuek Diputazioari:

“... que por aversión de sus funcionarios al euskera no ha conseguido imprimir en la imprenta provincial los opúsculos de Gramática. Tiene además preparado, sin poder imprimir por ese medio, un Vocabulario y antes de tres meses terminará la Gramática y un Manual de Conversación basco-castellano. También tiene a medio terminar una obrita de lectura amena...”

Azkueren Gramatika, edo *Euskal Izkindea* argitaratzeko laguntza onartua zen ordurako Diputazioan, 1889.eko Ekainaren 4ean, eta Azkueren aipatu eskaria hartu ondoren, hurrengo egunean, 1889.eko Abenduaren 20an baieztatua izan zen onarpena. Baina ezin izan zituen moldiztegi ofizialaren eragozpenak gainditu eta azkenean Jose Astui moldizginari agindu zion lana. 1891 urterako kalean zegoen Izkindea eta 1891-1892 ikasturterako katedraren testu gisa onartu zuen Diputazioak 1891.eko Irailaren 30ean, 150 ale erosit.

Irakurgaiekin aipatu zuen lana ere prestatuta zeukan Azkuek 1892.era-ko. Antoine D'Abbadieri zuzendu zion *Bein da betiko* dugu hau. Diputatuak lanaren edukina ikus zezaten, itzulpen bat aurkeztu zuen Azkuek 1892.eko Otsailaren 12an, orain ere Diputazioaren moldiztegiaren inprimatzea eskatuz. Diru laguntza eta inprimaketarako baimena eman zion Diputazioak 1892.eko Maiatzaren 24ean. Baina oraingoan ere ez zuen lortu bertan inprimatzea eta Santa Casa de Misericordia zelakoan moldiztegiara jo zuen Azkuek: 1893.eko Irailaren 2an amaitu zen inprimaketa, 500 ale arruntak eta 30 bereziak kaleratu zirelarik.

Katedraren azken laugarren eta bosgarren kurtsoan ikasleak gutxitzen joan ziren, 13 bakarrik zirelarik. Horregatik 1892.eko Ekainaren 28an, Galdiz Diputatuak katedra ezabatzea eskatu zuen, baina ez zioten proposamena onartu. Azkue bera ere pixka bat goibelduta zebilen eta beste ekintza probetxugarriago bat asmatu zuen 1893.eko Ekainaren 2an, ikasturtea amaitu ondoren, Diputazioari zera proposatuz: hurrengo ikasturtean, eta berehala hasita, katedrara huts egitea Euskal Herrian zehar euskal hitzak eta esaerak biltzen hasteko, Hiztegia burutzeko hain zehar. Udan ibili zen, asmatu bezala, baina ikasturtearen lehen egunetan berriz zegoen Bilbon, oraingoan 24 ikasle zituelarik. 1893-1894 ikasturte hau bukatu zuenean eta moldiztegiarekin ez zuela ezer lortzen ikusirik, ikasleentzat apunteak prestatzeko "auto-kopista" makina bat erosi zuen 125 pezeta ordainduz. Makina honekin argitaratu zuen eskuz idatzitako *Ensayo Práctico*.

Euskara eta musika izan ziren, dakigunez, Azkueren ardurak bizi guztian zehar. Eta katedran iraun zuen urteetan biak erabili zituen pedagogiazko tresna bezala eta bere ideialak adierazteko bide gisa. 1895.eko Otsailaren 2an estreinatu zuen Bilboko Patronatoan *Vizcaytik Bizkaira* zarzuela, katedrako ikasleekin baliatuz. Urte pare bat geroago beste zarzuela bat eman zigun, orain ere ikasleak partaide zirelarik: *Sasi Eskola*. 1897.eko Martxoaren lehen eguna zen. Beste hirugarren zarzuela bat eman zigun Azkuek hurrengo urtean, 1898.eko Otsailaren 20an *Euskaldun Biltokian* estreinatuz: *Pasa de Chimbos*, hemen ere ikasleak partaide zirelarik. *Eguzkia nora* eta *Colonia Inglesa* ere urte hauetakoak dira.

Baina solasaldi hauetatik aparte, tinko eta erne jarraitzen zuen Azkuek euskararen defentsan eta irakaskuntzan. Eusebio Maria de Azkue aitaren *Parnasorako bidea* kaleratzen du 1896an eta urte berean ikaslegoari begira bere *Método práctico para aprender el vascuence vizcaíno y guipuzcoano con su correspondiente clave de temas*. Harrigarria da urte hauetako Azkueren lana. 1896 urteko Uztailean kaleratuta zeukan bere *Proyecto de Ortografia* eta Azaroaren 13an Diputazioari diru laguntza eskatzen dio. Hurrengo urtean, 1897an, *El Vascuence en 120 lecciones* kaleratzen du eta Ubillos eta Añibarroren lanak ere argitaratzen ditu.

Eta hemen agertzen zaigu Ebaristo Bustintza Lasuen. Hainbat arazotan sartuta zegoen Azkue eta hiztegia ere burutzen ari zen. Laguntzaile bat behar zuen bai katedrarako eta bere lanetan ardura pixka bat beste baten eskuetan uzteko. 1896an hasten dira bion arteko harremanak. Bustintza, hamabi urte zituelarik, Almansara joana zen familiarekin eta handik iritsi zen Madridera 1895an fisika eta matematika zientzietan lizentziatura burutzeko. 1866.eko Urriaren 26an jaioa, 33 urterekin eta ezkongabea zen garaian idazten dio Azkueri Siguenzatik, Seminarioan irakasle delarik. "Agradezco mucho su ofrecimiento de trabajar por mi repatriación" diotso Azkueri, 1900.eko Apirilaren 3ko gutun batetan. *Euskalzale* aldizkaria debekatu ziotenez Azkueri, honen ordezeko bat sortzekotan zebilen orduan eta *Ibaizabal* izenburua jarri orduko, beste izen batzu ere asmatuta zeuzkan Azkuek, hala nola, *Ze barri?* eta *Eguna*. Bustintzak beste izen batzu proposatzen dizkio: *Barrizale*, *Barridun*, *Or emen*, *Azaldari*, *Batzaile*, *Agerlari*, *Geutarra*. Baina *Eguna* izenarekin kaleratzeko zen aldizkariak oztupoak aurkitzen ditu eta azkenean *Ibaizabal* izenarekin kaleratzen da 1902.eko Otsailaren bostean. Ordurako Bustintza Bilbon dago, 1901.eko Martxoaren 4ean etorrita. Baina ez da, maiz gaizki esaten den bezala, aldizkari berriaren zuzendaria, ez duelako oraindik, bere ustez, behar den bezala euskara meneratzen. Hori dela eta, Azkueren ikasle da Katedran 1901-1902 ikasturtean eta hurrengoan ere. Eta Azkuek ikusten duenean Bustintza klaseak emateko gai dela, bere ordezeko jaritzen du 1903-1904 ikasturtean. Esan behar da Bustintzak, lehen urte hauetan, *Mañari* eta *Bloa* ezizenak erabili zituela, ospea emango zion *Kirikiño* ez zuen 1913 arte erabili eta. Aipatu ikasturte horren bukaeran, 1904.eko Maiatzaren 18an idazten dio Bustintzak, ordezeko irakasle gisa, bere lehen gutun ofiziala Diputazioari, azterketen data finka zezatela eskatuz.

Azkue bitartean Hiztegiaren inprimaketa prestatzen ari da. 1902.eko Urriaren 10ean eskaini zion Bizkaiko Diputazioari arazo eta bere ustez ohore hau. Eta Diputazioaren aginduz aurrekontuak biltzen ibili zen, Tourseko Mame et Fils moldiztegikoa onartua izan zelarik. Hor dugu bada Azkue Toursen 1904 urtearen hasieran. Dakigunez, 1906.eko Maiatzaren azkenerako kalean zen Hiztegiaren lehen tomoa.

Mendearen hasierako urte hauetan gehitzen zihoan irakasleen kopurua. Esate baterako, 1905-1906 ikasturtean 98 ziren lehen mailakoak, 54 neskak zirelarik, eta 12 bigarren mailakoak. Beste arrazoi batzuren artean bazeukan gehitze honek ziorik: 1905.eko Urriaren 4ean eskatu zion Bustintzak Diputazioari orduak aldatzea eta ordutik aurrera arratsaldeko 7etatik 9ak arte eman ziren klaseak. Beste berri bat ere ekarri zuen aldaketa honek: 1905.eko Azaroaren 14ean argi elektrikoa jarri zen Euskal Katedrako geletan.

1906-1907 ikasturterako 113 ziren lehen mailako ikasleak, 24 neskak zirelarik, eta 20 bigarren mailakoak. 1906.eko Abenduaren 19an Brussela-

tik zuzendu zion Azkuek Diputazioari eskari bat bi katedra sort zitzan, bata gizezkoentzat eta bestea neskentzat. 1907.eko Otsailaren 15ean Azkueren eskaria onartua izan zen eta aurrerantzean bera izango zen gizonen katedra zuzenduko zuena eta Bustintza neskena. Baina Azkuek Brusselan eta Kolonian musika ikasten 1909.eko Abuzturarte egon zenez, ez zen aldaketa praktikorik egin. Handik etorri zenean egin zen katedren banaketa. Bustintzaren garai honetan aipa ditzakegu honako ikasle hauek: Severino Zuazo Ugalde, Adolfo Gabriel Urquijo, Ceferino Jemein, Manuel Robles Arangiz, Felicísimo Larrinaga Celaya, Manuel Irujo Ollo, Guillermo Ibáñez García, beste batzuren artean.

Katedraren 25 urte bete zirenean, 1913.eko Apirilaren 24ean eskari bat zuzendu zion Azkuek Diputazioari: ikasturtearen amaierako azterketak aurrera zitzala, folklore materialak bildu nahi zituen eta uda hartan Bizkaiko Diputazioak antolatu zuen lehiaketa batetara bere lana aukezteko. Hemendik sortu zen Azkueren beste izugarritzko lan bat, *Cancionero Vasco* delakoa, hain zuzen.

Azkueren bizitzaren 25 urte (1888-1913) ikusteko aukera izan dugu, ikuspuntu batetik behintzat. Katedraren eraginez bizi izandakoa gehien bat. Beraz, gizon erraldoi honek egindakoak, neurri handi batetan, Bizkaiko Aldundiak orain ehun urte hartutako erabaki bati esker gertatu ziren. Ordukoagatik eskerrak emotea dagokigu eta ildo beretik jarraituko duelaren esperantza agertu.

Eta entzuleoi mila esker nireak entzuteko izan duzuen eroapenarengatik.

BIBLIOGRAFIA

- AQUESOLO, LINO DE: *Dos notas autobiográficas de Resurrección María Azkue*. BRSBAP, 1965, I, pp. 50/63.
- ARANA GOIRI, SABIN: *Carta a José Arriandiaga*, Sukarrieta 15-VIII-1901. MUGA, n.º 17 (1981), pp. 43/47: *Sabino Arana juzga a Miguel de Unamuno*.
- ARANA GOIRI, SABIN: *Carta a Zabala'tar Aingeru*, Gernika, 13-VI-1987 (Inédita).
- ARANA MARTIJA, JOSE ANTONIO: *Resurrección María de Azkue*. Bilbao, Caja de Ahorros Vizcaína, Temas Vizcaínos n.º 103-104, 1983.
- BASAS, MANUEL: *Resurrección María de Azkue consiguió la primera cátedra de euskera en pugna con Unamuno*. El Corrego Español, 5-VI-1988.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA: Artxibategia: 1.037, 1.070/33, 1.079 Karpetak.
- BUSTINTZA, EBARISTO: Azkueri gutunak. Azkue Bibliotekako Artxibategian.
- CORCUERA ATIENZA, JAVIER: *Orígenes, ideología y organización del Nacionalismo Vasco (1876-1904)*. Madrid, Siglo XXI, 610 pp.

- IÑURRITZA (SALBATORE MITXELENA): *Unamuno eta abendatz*. Bayonne, Imp. Darrac 1956.
- JEMEIN, CEFERINO: *Biografia de Arana Goiri'tar Sabin e Historia Gráfica del Nacionalismo*. Bilbao, Editorial Vasca, 1935, XVI, 402 pp.
- LAKA, ITZIAR: *Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra*. ASFVJU, 1987, XXI-II, 409/424 pp.
- LAKA, ITZIAR: *Euskal Izkindeako aditza*. ASFVJU, 1986, XX-3, 705/754 pp.
- LLANO GOROSTIZA, MANUEL: *Azkue, Unamuno, Arana-Goiri y el vascuence*. El Correo Español, 6, 8, 9 y 10-1-1957.
- UGALDE, MARTIN: *Unamuno y el vascuence. Contra-Ensayo*. Buenos Aires, Editorial Ekin, 1969, 213 pp.